

AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEAREN ETA BERE SOZIJETATE PUBLIKO KUDEATZAILE DEN AGUAS DEL AÑARBE-AÑARBEKO URAK, SA-REN IZAERA

“Añarbe ibaiaren urtegiko uren udal mankomunitatea” 1968ko abuztuan sortu zen, edateko uraren hornidura-sistema orokor bat eratzeko helburuarekin eta, ondoren, saneamendura eta uren arazketara zabaldu zen. Hasiera batean zortzi udalerrri elkartu ziren (Donostiakoa buru zelarik) eta ondoren, Astigarraga eta Lasarte Oria elkartu ziren, gaur egun guztira hamar udalerrri dira: Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Pasaia, Oiartzun, Urnieta, Usurbil, Lezo eta Astigarraga. Mankomunitateak, beraz, edateko uraren horniketa eta hondakin-uren saneamendu eta arazketa zerbitzuak ematen ditu aipaturiko esparruan.

1996. urtean, Mankomunitateak sozietate kudeatzaile publiko bat eratu zuen, Aguas del Añarbe-Añarbe Ura, SA (AUSA) deiturikoa. Sozietateko eta bere Batzar Nagusiko Presidentea Mankomunitatekoa bera da, eta Administrazio-Kontseilua Mankomunitateko zortzi batzarkidek osatzen dute.

Mankomunitatearen betebeharrak eta helburuak, gaur egun AUSA bere sozietatearen bitartez egiten direnak, bere Estatutuaren 4. artikuluan jasotzen dira, eta AUSAren xede soziala, berriz, Estatutuaren 2. artikuluan dago finkatua.



ANTOLAKETA

Gobernu organoak

Mankomunitatea bere Batzarrak gobernatzen du. Hura osatzen duten hamar udaletako 17 kidek osatua dago, udalerrri bakoitzak duen biztanleriaren proportzioan, eta udal-biltzarreko kideen artean hautatuak izaten dira.

Donostia



Mª Jesús
Celaya
Eguiguren

Presidenta



Martín
Ibabe Ezeiza



Alfonso
Gurpegui Ruiz



Miguel Ángel
Díez Bustos



Bernardo
Lemos Taberna



José Cruz
Legorburu
Ayestaran

Errenteria

Hernani



Luis
Intxauspe
Arozamena



Koro
Etxeberria
Tolosa



Jesús
Zaballos
de Llanos

Lasarte-Oria



Jon
Antxordoki
Rekondo



Lore
Suarez
Linazasoro

Pasaia



Aitor
Iturbe Otaegui

Oiartzun



Jesús
Leonet Elicegui

Urnieta



Mikel
Pagola Tolosa

Gordailuzaina

Usurbil



Jone
Urdanpilleta
Urdanpilleta

Presidenteorde

Lezo

Miguel Ángel
Sánchez
Antúnez

Astigarraga



Juan Martín
Arregui Sagües

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietate kudeatzaileko akziodun bakarra Mankomunitatea da, eta bere gobernu-organoak dira: Batzar Nagusia (Mankomunitateko Batzarra osatzen duten pertsona berdinez osatua) eta Administrazio-Kontseilua, zortzi kontseilariz osatua.

M^a Jesús Celaya Eguiguren (Presidentea)
Jesús M^a Zaballo de Llanos (Presidenteordea)
Alfonso Gurpegui Ruiz
Miguel Ángel Díez Bustos
José Cruz Legorburu Ayestaran
Aitor Iturbe Otaegui
Mikel Pagola Tolosa
Jone Urdanpilleta Urdanpilleta

Langileak

AUSAk gaur egun 27 langile ditu, eta ur kudeaketa-zerbitzuak ematen dituen enpresa batekin merkataritza-kontratu bat du (une honetan UTE Añarbe, Degrémont, SAU - Ansareo Saneamientos y Servicios, SA eta Serkom, Gestión y Servicios Grupo Moyua, SL enpresek osatzen dutena), eta honek Añarben 80 pertsona ditu lanean. Hona hemen bi enpresek osatzen duten organigrama:

